

Baiña, egiz, orrelako denbora udarakoa zanez,
udazken joria zan, aberastasun betez,
ordu marlulen astuntasun croan eramanez
senarra ildako alargunaren erraien antzez.

Baiña ugaritasun ura iduritzen zitzaidala
umezurtzaren itxaropena eta guraso bako landara,
udarak eta goraltzeak zurekin bakarrik dirala,

ta zu urruti, txoriak ere dirala mutuak:
edo kantatzen badute, orren samina da beren poza
ostoak ere zurbil dira, neguaren beldurrak.

OTSALAR-ek euskeratuak

EREMUAN

Bizi bakartiaren maitasun garbia,
ixillaren idoro nai anker osoa,
bizitza sorburuan murgildu-nai latza,
pozkarri sendoa!

Zoaze niregandik, anai gizajoak;
itxi nagizue ni eremu-bidean,
itxi nagizue soil neure zoriagaz,
lagun bage utsean.

Ara joan opa dot, aretzan galtzera,
Jainkoagaz bakarka, etxe-zidor barik,
ez zugatz, ez lore-muin, ezta biztanlerik,
biok bakar soilik.

Lurrean neu bakarrik, bakar-magalean,
bakar ta bakarti an zerun Jainkoa,
ta mugage billosa gu bion tarteko
eskiñiz gogoa.

Lekuko maltzur bage itz dagitsot antxe,
abots zaurituz ixil naiako mintzatzen,
eta Berak be ixilka dantzuz, ta oiua
daust barne gordetzen.

Ao bazter bagakoz mosutzen nau Jainkok,
bere maitezko aoz; sugar osorik dan
zoan mun dagist ta leia bizitan daust
ixetzen osoan.

Orrela su-bizturik lurrera biurtu
ta eskuakaz leian naz barriro jarten
ondar su-pispilduak arretaz saratzen;
or atzak odoltzen.

Atzazkalak, ots, irrirts-erpak jausten yataz,
izerdiak daust gorputz auldua ezkotu,
odola yat zanetan izozkera jarten,
ur-egarri nozu;

ondartzak baitan dauan Jainkozko ur egarri,
eremuan lo dagon Jainkozko ur-min larri,
azpi artan ozkirri ta garden dabillen
uraren egarri;

ondar musinak bere altzo legorrean
arduraz zaintzen dauan ur ezkutu gale,
argitik urruti be zeru betez bizi dan
ur otzaren zale.

Eta zurruta batek —bizitzazko iturri—,
buru ta biotz zuzper ni oso itzultzean,
Jainkoari jasoten dausat bekokia
ta, ibilli leunean,

malko bi jausten yataz begitik arera;
ots-otsean irunsten dauz magal antzuak,
eta ara daroez, ur gardenaz biltzera,
nire gurariak.

Zagoze zuok ortxe zerutikako ura
artzen dauen lur-puska otzan orreitan latz;
Jainkoak odeiz destal, euria dalarik,
betartea mergatz.

Zagoze zuok ortxe zugatz, lore, txoriz
apaindu zelaietan...; Jainkoaz itsurik,
atsegiñean murgil bizi zaren oro, or
izten dautzuet nik.

Itxi naizue bakar ta soil, bakarrean
neure Jaun bakartiaz, naitara osoa;
Aren azpiko uretan billatuko dot nik
pozkarri sendoa.

Unamuno - Igotz